

UDALGINTZA

HONDARRIBIKO UDAL LANGILERIA

Jakina denez, Hondarribia handitzen ari da. Gaur egun, 17.071 biztanle gara. Ezin esan herri handia garenik, baina kontuan hartzekoa bai, zalantzarik gabe. Gure herria hazten ari den heinean, zerbitzuak handitu egin behar dira, hauek hornitu eta zerbitzuei loturiko gizon eta emakumez osatu, langileez alegia. Zerbitzuak bideratzeko orduan, bestetik, zerbitzu horiek nola kudeatu edo gestionatu erabaki behar da. Kudeaketa publikoa, pribatua, fundazioak edo eta erakunde publiko-pribatuak antolatzeke erabakiak hartzen dira, honenbestez. Oraingo honetan kudeaketa publikoari buruz arituko gara.

Kudeaketa publikoa ongi antolatzea behar beharrezkoa da. Ezin dugu ahaztu herri bateko erakunde publikoak herritarren zerbitzura egon behar duela, herriko etxea kudeatu eta zerbitzuak eskaintzeko. Kasu honetan, Hondarribiko Udalak zerbitzu publikoak eskaintzeaz gain, hauek bermatu behar ditu eta bermatzeaz gain, eraginkorrak izan behar dute.

Kontratazio publiko iraunkorrerako Hondarribiko Udalaren azkenengo deialdi publikoa 2006an izan zen, duela hamar urte.

Gaur egun, Hondarribiko udaleko barne antolakuntzan gabeziak daude, udal langileei dagokienez, hain zuzen ere. Azken urte hauetan udaleko hainbat sailetan langileak falta dira arrazoi desberdinak medio, erretiroa hartu dutelako, aldi bateko kontratuak egiten direlako, eta abar. Egoera honek udal langileen kopurua pixkanaka txikitzea ekarri du, langileen lan zama handituz eta udal sailen egoera okertuz.

Kontratazio publiko iraunkorrerako Hondarribiko Udalaren azkenengo deialdi publikoa 2006an izan zen, duela hamar urte. Udaleko sail batzuk lanez gainezka daude, langileen lan baldintzen eta herritarrei eman beharreko zerbitzuen kalterako. Udaleko beste sail batzuk, berriz, beraien lana behar bezala burutu ezinik daude edota burutzeko zailtasunekin, premia duten hondarribiarren eskaerei ezin aurre eginik. Kasu batzuetan hitzorduak hiru hilabeteko atzerapenarekin emanez, herritarren eskaeren aurrean isiltasun administratiboa eraginez, udal ordenantzen jarraipen eza etab.

Hondarribiko Udalean 81 langile daude, horietatik %58a lanpostu finkoan. Gainontzeko %42 aldi baterako kontratuekin dabil lanean. 17 dira aldi baterako lanpostuak, eta beste 12 lanpostu bete gabe daude. Lanean baina izendatu gabe dauden 5 langileren egoera gehitu behar zaio guzti honi. **Gure ustez, bar-**

ne deialdia egin behar du Udalak eta libre geratzen diren lanpostuekin deialdi publikoa zabaltzeko. Azken urteetako Espainiako gobernuaren lan erreformaren legeak mugak eta baldintzak jartzen badizkigu ere ezin dugu egoera hau bere horretan onartu. Zeintzuk dira oinarritzko zerbitzuak eta zeinek ezartzen dizkigu?

Horregatik eskatzen dio Abotsanitzek Hondarribiko Udala zuzentzen duen udal gobernuari lehen bait lehen hartzeko hartu beharreko erabakiak. Hondarribiko Udalaren egoera ekonomiko ona kontuak izanik, ongi bermatu litezke udal langileen egoera eta egin beharreko egokitzapenak.

Hondarribia goza la excepcionalidad de crecer demográficamente. Según el padrón municipal somos 17.071 hondarribiarras. Una población a la que se debe garantizar unos servicios públicos eficaces. Esto requiere de medios técnicos y humanos adecuados.

A pesar de que el Ayuntamiento cuenta con posibilidades de dotación, el servicio público se ha reducido. Vacantes por jubilación sin cubrir, contratos temporales y amortización de plazas, entre otros, han agravado la situación laboral de las trabajadoras y trabajadores municipales que sufren una mayor carga de trabajo. Esto se traduce en demora o ausencia de respuesta, lista de espera para dar cita, en algunos casos de hasta tres meses, y demás. En definitiva ha empeorado la calidad del servicio. Por tal razón solicitamos al Gobierno Municipal que dentro del margen que permite la ley, actualice la plantilla municipal hasta conseguir las condiciones laborales que posibiliten un servicio público eficaz.

HAUEK DIRA AZKEN HILABETEETAN HONDARRIBIKO UDALAN ABOTSANITZETIK EGIN DITUGUN ESKAERAK:



TRAFIKO PUNTU BELTZAK:

Txiplao eta Santa Engrazia lotzen duen zebra bidean segurtasun neurriak gehitzea, eta berdin Zumardian, Sabino Aranatik Irun kalera pasatzerakoan dagoeanean eta ikastetxeetatik gertukoenetan. Azterketa sakona eta segurtasun neurriak hartu behar dira, berandu baino lehen.

TXINGUDI ZERBITZUAK:

PARTEHARTZEA ETA GARDENTASUN GEHIAGO. MAS PARTICIPACIÓN, MAS TRANSPARENCIA.

TXINZERreko batzarraren eta administrazio kontseiluaren irekiera eskatu dugu, oposizioko udal talde guztiek parte hartzeko aukera izan dezagun.

TXINZERrek bulego bat jartzea Hondarribian, eta beharrezkoak diren zerbitzu guztiak eskaini, hondarribiarrok egin beharreko kudeaketak herrian bertan egin ahal izateko.

Ez dugu begi onez ikusi ur eta zaborren tasan igoera proposamena. Gure ustez Kontsumorako Prezioen Indizearen (KPI) araberakoa izan behar du igoerak. Birziklapenaren kasuan, hobariak egiterakoan, modu integral batean egin behar dela uste dugu.

Egoera ekonomiko larrian dauden biztanleei ur hornidura ez mozte eta erabaki hori ordenantza baten bidez onartzea eskatzen dugu.

Uraren ziklo integralari dagokionez eskatzen dugu: Bilera monografiko bat, eragin diren zalantzak argitzeko; Argindar ekoizpenaren datu zehatzak.



Domikako zentralako ubidean itota hiltzen ari diren animalia espezieak babesteko neurriak hartu daitezela.

-Hiri hondakin solidoei dagokionez, zaborraren bilketa eta tratamendua ezagutzeko bisita informatibo-gidatuak antolatzea. Kaleko zaborrontziak aldatu edo egokitztea, birziklapena bermatu eta sustatzeko.

GIZARTE ZERBITZUAK:

ELKARLANEAN BURUTU BEHARREKO GENERO INDARKERIAREN AURKARO PROTOKOLOA. CREACIÓN EN CONJUNTO DE UN PROTOCOLO CONTRA LA VIOLENCIA DE GENERO.

Genero indarkeriaren aurkako protokoloaren beharra dugu Hondarribian. Udala, eragile, elkarte eta pertsona desberdinen artean protokolo bateratu behar dela uste dugu. Horregatik proposatzen dugu alde guztien arteko elkarlana, protokolo hori herriari egokitutakoa izan dadin. Gaur egun erabiltzen diren prozedurez haratago joan behar da.

Hondarribiko Udalak neurriak hartu ditzala eskatu dugu, zerbitzu hau behar duten hondarribiarrei hiru hilabeteko epearekin ari baitzaizkie ematen hitzordua.



HIGER FAROLA:

HEZIKETA, AISIALDIA, TURISMO BERDEA ETA HERRIARI IREKIA. FORMACIÓN, OCIO, TURISMO VERDE Y PARA EL PUEBLO.

Pasaiako Portu Agintaritzatik jasotako eskaintzaren aurrean, Hondarribiko Udalak itsas argia kudeatzeko aukera dauka. Heziketari eta aisialdiari lotuta, turismo berdea bultzatzeko balioko duena eta herriari irekita egongo den itsas argia nahi dugu, eta hori da gure proposamena. Arlo ezberdinetatik jorratu behar da gaia. Lehenik, erakundeen arteko elkarlana. Farolaren eraberritze lanak heziketa programa baten bidez, gero. Eskaini beharreko zerbitzua, hirugarrenik, ostalaritzako heziketa erakundeekin hitzartuz. Eta, azkenik, Jaizkibel mendiko natur gunerako (itsasoa, geologia, biologia, etnografia) atea izatea nahi dugu, farolak Hondarribiarekin eta badiarekin duen lotura gogoratuz, bisita gidatuak eginez eta herritarrei irekia izango dena.

Herritarrei galdera:

- Higer itsas argia Hondarribiko Udalak eskuratu eta kudeatu beharko lukeela uste duzu?

HONDARTZA KIROLDEGIA:

SINATUTAKO BALDINTZA AGIRIA BETE DADILA. LANGABETU ETA FAMILI UGARIEI KUOTA BEREZIAK EZARRI. CUOTAS ESPECIALES PARA DESEMPLEADOS Y FAMILIAS NUMEROSAS. CUMPLIMIENTO INTEGRAL DEL PLIEGO DE CONDICIONES.

Hondarribiko Udalaren eta KIROLZERen arteko baldintza agiria betetzea. Ez da betetzen beharrezkoak diren langileen kopurua. Ondorioz, kiroldegiko langileak berak eta erabiltzaileak dira kaltetuak.

Langabetuei eta familia ugarietuei kuota berezi bat ezartzea eta euskararen udal ordenantza bere osotasunean betetzea eskatzen dugu.

Iraileko geldialdi teknikoaren ondorioz, hilabete horretan, kiroldegia hogeit egunez bakarrik dago zabali. Beraz, bazkideei kobratu beharreko kuota murriztea eskatu dugu.





BIDASOA-TXINGUDI PARTZUERGOA ETA BIDASOA BIZIRIK:

OPOSIZIOKO UDAL TALDEEN PARTE HARTZEA. PARTICIPACIÓN DE LOS GRUPOS DE LA OPOSICIÓN.

Bidasoa-Txingudi mugaz gaindiko partzuergoko lan batzordeetan parte hartze zuzena izatea eskatu dugu, ez batzarretan bakarrik. Hasiera batean baiezkota esan eta gero, lan batzordeen egituraketa Hondarribia eta Irungo udal gobernuko kideekin bakarrik osatu da. Gero, lan batzordeetan izateko aukera eman zaigu, baina modu sinbolikoan bakarrik. Iritzia emateko aukera dugu, baina bozkatzeko aukerarik gabe.

Bidasoa Bizirik garapenerako agentzian parte hartu ahal izateko eskaera ere egin dugu. Udal hauteskundeetako emaitzen proportzionaltasunak, kanpoan uzten ditu udal desberdinetako oposizio taldeak. Gaur egungo egituraketarekin ez da bermatzen talde politikoaren parte hartzea.

UDALGINTZA

2016 UDAL AURREKONTUAK

+ Abotsanitzek aurkeztu eta onartutako emendakinak:

1. Genero indarkeriaren aurkako protokolorako 6.000€.
2. Higer itsas-argiaren kudeaketarako plangintza egiteko 7.500€.
3. Ezintasunak dituzten haurrentzako jolasparkeak egokitzeko 10.000€.

Abotsanitzek aurkeztutako laugarren emendakin bati diru kopurua gehitzea onartu zen. 25.000€ parte hartzea sustatzeko ekimenarentzat.

X Bozketara eraman ez genituen emendakinak, aukera ikusi delako udaleko beste prozedura batzuen bitartez eramateko aurrera:

1. Berdintasun teknikari baten kontratazioa.
2. Gizarte zerbitzueta itxaron zerrenda eguneratzeko bitartekoak jarri.
3. Zuloaga etxea liburutegi berritua- rentzat giza baliabide eta teknikoak gehitu.
4. Amuteko komentu aurreko biribil- gunea egokitu.
5. Herri barruko bide gorri sarea osatu.
6. Alde zaharrean motorrak aparkatze- ko estalpeak jarri eta zirkulazioa antolatzeko ordenantza egin.
7. Udal ondarearen inbentarioa egin eta eguneratu.
8. Presa lurzoruan hobekuntzak egin.
9. Mendeluko haur jolasparkea egokitu.
10. Aranzadi elkartearentzat diru la-

2016ko aurrekontuetan, Abotsanitzek 1.977.000€tako 27emendakin aurkeztu zituen.

guntza, Guadalupeko gotorlekuan egin beharreko indusketentzat.

11. Eskola liburuak erosteko diru laguntza.

- Bozketara eraman eta onartu ez zizkiguten emendakinak:

1. Argindar pobrezia ekiditeko neurriak.
2. Euskararen udal ordenantza betetzeko bitartekoak.
3. Udal euskaltegiko doakotasuna.
4. Udal langilegoaren estrukturaorako plangintza.
5. Herriko auzoak elkartu eta herri barrurako, mikro-bus bidezko zerbitzua.
6. Haur jolasparke bati estalkia jartzea.
7. WC publikoak San Kristobal inguruan, Amuten eta Alde Zaharrean.
8. Amute auzoan soina ekiditeko panelak.
9. Udal lurzorua erosteko ekimena.
10. Alokairua sustatzeko diru kopuru handiagoa.
11. Kaleko zaborra birzikaltzeko zaborrontzi egokiak.

Guzti hau kontuan izanik, eta asmoak baino ekintza zehatzak eta hauek garatzeko aurrekontuak finkatzea ezinbestekoa denez, **Abotsanitz udal taldeak, ezezko botoa eman die 2016 urterako aurrekontuei.**

Udal gobernuak asmo onak dituela esateaz gain, beste-lako jarrera bat izan behar duela uste dugu, eta hitzetatik ekintzetara pasa.

Hondarribiko udala gidatzen duen EAJK hainbat hamarkadetan abiatutako politikagintza ereduari eusten dio. Eragin eskaseko hainbat inertiaren kudeaketa eredu da. Udal langileen egoera, kultur etxearen egoera, etxebizitzaren arloa, enplegu eraginkorra sustatzeko ekimen falta, euskararen erabilera benetan bultzatzeko jarrerarik eza, herriko proiektuak hondarribiarrekin batera konpartitze falta eta, azkenik, herriari begira baino kanpora begira egindako politikak. Hauexek dira udal gobernu honi gure babesa ez emateko argudioak.

Abotsanitz presentó a los presupuestos de 2016 un total de 27 enmiendas por un importe de 1.977.000€.

+ Tres enmiendas aprobadas:

1. Redacción de un Protocolo contra la violencia de género: 6000€.
2. Planificación para el proyecto del faro Higuier : 7.500€.
3. Acondicionar algunos parques infantiles para discapacitados: 10.000€.

Además se aprobó aumentar hasta 25.000€ la partida económica de una cuarta enmienda y que tiene que ver con el fomento de la participación ciudadana.

* Enmiendas que acordamos no presentar a votación por que se tramitarán por otros cauces:

1. Contratación de una Técnico de Igualdad.
2. Medidas para agilizar la lista de espera en Servicios Sociales.
3. Dotar de más medios humanos y técnicos a la nueva Biblioteca Municipal.
4. Mejorar la rotonda de Amute-Konbentuaurre.
5. Enlazar la red de bidegorri del pueblo.
6. Redacción de una ordenanza que regule el aparcamiento en Alde Zaharra y acondicionar un área de aparcamiento para las motos en esa zona.
7. Actualización del inventario del patrimonio municipal.
8. Acondicionar el solar de Presa.

9. Mejoras en el parque infantil de Mendelu.
10. Subvención a Aranzadi para las excavaciones en el Fuerte de Guadalupe.

11. Subvenciones para material escolar.

● Enmiendas rechazadas:

Enmiendas que presentamos a votación y que fueron rechazadas:

1. Aprobación de medidas para erradicar la pobreza energética.
2. Dotar al Ayuntamiento de medios adecuados para garantizar el cumplimiento de la ordenanza sobre el euskara.
3. Gratuidad del euskaltegi municipal.
4. Mejorar la planificación y reorganización interna de los diferentes departamentos del Ayuntamiento.
5. Minibus para enlazar los barrios y tráfico interno.
6. Propuesta para para cubrir un parque infantil.
7. WC públicos en San Cristobal, Amute, Alde zaharra.
8. Paneles acústicos para el barrio de Amute.
9. Actuación para la compra de terreno municipal.
10. Aumentar la partida económica para fomentar el alquiler de viviendas.
11. Instalación de papeleras adecuadas para el reciclaje.

Al final **el grupo municipal de Abotsanitz votó en contra de los presupuestos de 2016** porque las buenas intenciones del gobierno municipal no bastan, es necesaria otra actitud que permita pasar del dicho al hecho. Porque estos presupuestos apuntalan el modelo de actuación política puesto en práctica por el PNV en Hon-

darrbia durante las últimas décadas. Se trata de un modelo lastrado por la inercia y la ineficacia. La situación de los trabajadores del ayuntamiento, la gestión de la casa de cultura, las políticas de vivienda y empleo, la desidia en el fomento del euskara, las actuaciones unilaterales o a posteriori en diferentes obras y, en definitiva, la política de mirar hacia fuera en vez de compartir con las y los hondarribarras los diferentes proyectos, son razones suficientes para no dar nuestro apoyo a este gobierno municipal.